

**BERRIZ-Enpresa 100% hazi da martxan jarri zenetik 25 eskualdatze gauzatuekin, eta sendotu eta indartu egin da “Bere historia, zure etorkizuna” kanpainarekin**

## **Merkataritza, Ostalaritza eta Ostatu sektorearen eskualdatzea ahalbidetzen duen BERRIZ-Enpresa programak sei hilabetetan 2015 urte osoko zifra berdinak lortu ditu**

- **Hirurehun pertsona baino gehiagok adierazi dute interesa BERRIZ-Enpresa programan lehenengo sei hilekoan. Programa “Bere historia, zure etorkizuna” kanpainarekin indartu da.**
- **Itziar Epalzak, Merkataritza eta Turismo sailburuordeak eta Pedro Esnaolak Eusko Ganberakeko presidentek programaren sendotzea azpimarratu dute urte honetako lehen sei hilekoan 2015 urte osoko zifra berdinak lortu direlako gauzatutako eskualdatzei dagokionez.**

Itziar Epalzak, Merkataritza eta Turismo sailburuordeak Pedro Esnaolarekin, Eusko Ganberakeko presidentearekin batera BERRIZ-Enpresaren datuak aurkeztu ditu gaur Gasteizen, programaren hazkuntza eta sendotzea azpimarratuz. Beraiekin batera Gregorio Rojo, Arabako Merkataritza Ganberako presidentea eta José Ángel Corres, Bilboko Merkataritza Ganberako presidentea izan dira.

Programaren balantzea sekulakoa dela esan dezakegu kontutan izan da **2015ean 13 negozioen eskualdatzea egin zela eta urte honetako lehenengo sei hilekoan bakarrik 12 eskualdatze egin direla**. Horrez gain, 318 saltzaileek eta erosleek programarengatik interesa adierazi dute eta bakarkako elkarrizketak egin dituzte, 56 programaren barruan daude eta 49 ikerketa fasean daude BERRIZ-Enpresan sartu ahal izateko.

Emaitzek adierazten dute programa honi esker eskualdatze prozesuak sendotu egin direla. Merkataritza, Ostalaritza eta Ostatu sektoreari zuzendutako BERRIZ-Enpresa programa bermearen zigilu bihurtu da, segurtasunaren eta fidagarritasunaren sinónimo, negozio baten eskualdatze prozesuan hasten diren pertsonentzat.

Sailburuordeak eta Eusko Ganberakeko presidentek programaren hazkuntza eta sendotzea azpimarratu dute, sortu zenetik, 2014 urtetik 100% hazi baita ondorengo datutan ikusi daitekeen moduan:

- Gauzatutako eskualdatzeak (itxitakoak)

<b>2014</b>	Araba: 0	Bizkaia: 0	Gipuzkoa: 0
<b>2015</b>	Araba: 3	Bizkaia: 6	Gipuzkoa: 4
<b>2016</b>	Araba: 4	Bizkaia: 4	Gipuzkoa: 4

### **Saltzaileari eskeinitako zerbitzuak**

- Programan parte hartu nahi duten saltzaileei egindako bakarkako elkarrizketen kopurua

<b>2014</b>	Araba: 12	Bizkaia: 15	Gipuzkoa: 22	
<b>2015</b>	Araba: 50	Bizkaia: 89	Gipuzkoa: 27	
<b>2016</b>	Araba: 13	Bizkaia: 59	Gipuzkoa: 58	130
<b>Merkataritza</b>	7	42	40	89
<b>Ostalaritza</b>	6	15	16	37
<b>Ostatua</b>	0	2	2	4

- Une honetan prozesuan dauden saltzaileak

- Informazioa jasotzeko fasean daudenak

<b>2014</b>	Araba: 4	Bizkaia: 3	Gipuzkoa: 3
<b>2015</b>	Araba: 32	Bizkaia: 40	Gipuzkoa: 7
<b>2016</b>	Araba: 7	Bizkaia: 17	Gipuzkoa: 25

- Dosierra egiten-Programan sartu eta kontratua sinatu dutenak

<b>2014</b>	Araba: 3	Bizkaia: 2	Gipuzkoa: 6
<b>2015</b>	Araba: 5	Bizkaia: 10	Gipuzkoa: 10
<b>2016</b>	Araba: 8	Bizkaia: 28	Gipuzkoa: 20

### **Erosleari eskainitako zerbitzuak**

- Programan parte hartu nahi duten erosleei egindako bakarkako elkarrizketen kopurua

<b>2014</b>	Araba: 5	Bizkaia: 6	Gipuzkoa: 18	
<b>2015</b>	Araba: 7	Bizkaia: 38	Gipuzkoa: 19	64
<b>2016</b>	Araba: 29	Bizkaia: 88	Gipuzkoa: 71	188

<b>Merkataritza</b>	20	63	52	135
<b>Ostalaritza</b>	9	23	14	46
<b>Ostatua</b>	0	2	5	7

- Une honetan prozesuan dauden erosleak/ekintzaileak

<b>2014</b>	Araba: 5	Bizkaia: 0	Gipuzkoa: 13
<b>2015</b>	Araba: 13	Bizkaia: 100	Gipuzkoa: 21
<b>2016</b>	Araba: 26	Bizkaia: 73	Gipuzkoa: 22

Lan hau guztia kasu bakoitzean eskualdatzea ziurtatzeko mekanismoak martxan jatzeko burutzen da. Horrela, eskarera eta eskaintzaren arteko zubia egiten da eta une honetan martxan dauden negozioen jarraipena eta hazkundera bermatzen da, hau berriak sortzeko egiten den sustapena bezain garrantzitsua baita.

### **2016ko ekintzak**

BERRIZ-Enpresa programaren sendotzearekin jarraitzeko burutuko diren ekintzak komunikazioa eta sentsibilizazioa izango dute ardatz, eta erosle eta ekintzaileei deialdi berezia egingo zaie beraiek direlako Merkataritza, Ostalaritza eta Ostatu negozioei jarraipena emateaz arduratuko direnak.

Bide horretatik programa indartu egin da “Bere historia, zure etorkizuna” kanpainarekin, mailing bitartez euskadiko 45.000 merkatariari iritsi da zuzenean, baita prentsa, irratia eta beste bide batzuen bitartez.



## “Duela 20 urte, amets bat bete eta neure negozioa hasi nuen. Orain zeurea bete dezakezu”

BERRIZ ENPRESA zerbitzuak enpresen jarraipena errazten du Euskadin.

BERRIZ ENPRESAK aholkularitza ematen dizu, transmisioa errazten dizu, laguntasuna ematen dizu negozioa balioan jartzeko, eta prozesu osoan laguntzen dizu, enpresa martxan jarri arte.

Zure negozioa eskualdatu nahi baduzu edo, aitzitik, jarraipena eman nahi badiozu, BERRIZ ENPRESAK doako laguntza pertsonalizatu eta konfidentziala emango dizu.

Jar zaitez gurekin harremanetan:

**Cámara de Álava**  
Arabako Ganbera  
945 14 18 00  
camaraalava@berrizenpresa.com

**Cámara de Bilbao**  
Biboko Ganbera  
944 70 65 00  
camarabilbao@berrizenpresa.com

**Cámara de Gipuzkoa**  
Gipuzkoako Bazkundera  
943 00 03 00  
camaragipuzkoa@berrizenpresa.com

[www.berrizenpresa.com](http://www.berrizenpresa.com)



**BERRIZ-  
ENPRESA**  
Enpresa transmisiorako  
zerbitzua

**Bere historia,  
zure etorkizuna.**

Horrez gain, Merkataritza Ganberek bilera teknikoak, jardunaldiak eta hitzaldi informatiboak egingo dituzte, eta baita sare sozialak eta blogak erabiliz internet bitartez sustapen plana egingo dute ere, ***berrizenpesa.com*** webgunearen eguneratzearekin jarraituz.

Programa honen amaizak lortu ahal izateko Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Ganberek beste erakundeekin lan egiten dute. Udalak, aldundiak, enpresari elkarteak, unibertsitateak, lan heziketa zentruak, ekintzaileak, Garapen Agentziak, Lanbide, eta finantza entitateak parte hartzen dute Euskadiko eskualdatze proiektu honetan.

Gasteiz, 2016ko uztailaren 18a